



22 URTEKO LANGILE BAT HIL DA ELORRIKO ENPRESA BATEAN MAGNESIOAK EZTANDA EGIN ONDOREN

Beste 4 langile zauriturik suertatu ziren, horietatik 2 oso larri daude

Atzo, azaroak 14, Elorriko Leunketa enpresa txikian lan istripua gertatu zen. Azpikontrata bateko 2 langile soldadura lanak egiten ari ziren lantegiko sabaian, eta soldadurak sortutako txinpartak magnesio hautsa zeukan saku baten gainean erori ziren eta eztanda egin zuen, eta inguruan zeuden langileak eztrandak harrapatuak izan ziren.



Magnesio hautsa oso metal sukoia da eta txinparta erori zenean, sua eragin zuen. «Lurretik sabaira arteko sua sortu da, eta bero jasangaitza eragin du», adierazi zuen istripuaren testigu batek.

Baliteke enpresako langileek sua arintzeko ura bota izana, eta horrek sua areagotzea. Izan ere, magnesio hautsari ura botatzea oso arriskutsua da, eztanda eragiten duelako. Garren ondorioz zauritu ziren bai hildakoa eta bai beste lau langileak ere. Tartean daude enpresako jabea eta haren semea.

Istripu larri honetan hiru faktore desberdinak agertzen dira:

1.- Lantokian zegoen produktuaren ezaugarriak ez ezagutzea.

Magnesio hautsaren ezaugarriak eta sor ditzakeen arriskuak oso argi agertzen dira Segurtasun datuen fitxetan. Fitxa hori materiala erosten denean eskatu behar zaio banatzaileari. Bestela interneten dago gure esku: <http://www.mtas.es/insht/ipcsnspn/nspn0289.htm> Bertan oso argi azaltzen da magnesio hautsa oso sukoia dela. Edozein txinparta erortzen bazaio oso erraz hartzen du sua, eta sortzen duen kea toxikoa da. Hauts partikulak airean zabaltzen badira erraz lehertzen dira.

Fitxan oso argi agertzen da nola amatatu behar den sutan dagoen magnesio hautsa. Hondar lehorra erabili behar da, eta ura erabiltzen bada, leherketa gertatuko da.

Gainera, magnesioa erabiltzen duten enpresentzat abiso nahikoa egon zen uztailean bertan, Abadiñoko enpresa batean leherketa egon baitzen eta 9 langile zaurituta suertatu ziren.

2.- Enpresen arteko koordinazio falta.

Lantoki batean konponketa lanak egiteko kanpoko enpresa bat kontratatzen denean, kontratua egiten duen enpresak bere lantokian dauden arriskuen eta hartu behar diren prebentzio neurrien berri eman behar dio kontratatutako enpresari, eta honek, informazio horren arabera antolatu behar du bere iharduera.

Lan arriskuen prebentziorako legearen garapena egiten duen 2004ko 171 errege dekretuak arautzen du enpresen arteko koordinazioa nolakoa izan behar den. Testua helbide honetan dago: http://www.mtas.es/insht/legislation/RD/art24_lprl.htm

3.- Enpresa oso txikien zailtasunak

Oso txikiak diren enpresentzat ez da batere erraza prebentzioa antolatzea. Teorian Mutuek lagundu egin beharko liekete prebentzioa antolatzen, horretarako bideratu baita Prebentzio fundazioak bildutako diru asko. Tamalez, zeregin hori ez dago mutuen lehentasunen artean, baja arrunten kudeaketak etekin hobeak ematen ditu eta.



Zer egin dezakezu?

- Irakurri gai honi buruz Berria, Gara eta Correo egunkarietan argitaratutako informazioak STEE-EILASen web orrian, lan osasuna atalean topatuko dituzu informazio horiek.
- Galdetu zure buruari ea erabiltzen dituzun edo zure inguruan dauden produktuen ezaugarriak ezagutzen dituzun. Egin produktu horien zerrenda eta beren Segurtasun datuen fitxak bilatu <http://www.mtas.es/insht/ipcsnspn/Introducci.htm> helbidean edo fitxak banatzailerari eskatu.
- Zure lantokian lan egiten duten kanpoko enpresek bertan dauden arriskuak ezagutzen dituzte?. Are gehiago, zuk zeuk ezagutzen dituzu? Ezetz erantzuten baduzu, galdetu zure instituzioko Prebentzio Zerbitzuan edo ikastetxe pribatua bada, zuzendaritzan. Zure kabuz arriskuen zerrenda egiteko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak erabiltzen duen arriskuen ebaluaketarako plantila erabil dezakezu http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5475/eu/contenidos/informacion/die8/eu_2067/adjuntos/procedimientos/evaluacion_riesgos/plantillas_evaluacion_riesgos_e.pdf
- Antolatzen diren protesta ekintzetan parte hartu, edo zeuk antolatu. Eskutitzak bidali komunikabideetara.

Ikasleekin egiteko aktibitateak

- Irakurri gai honi buruz Berria, Gara eta Correo egunkarietan argitaratutako informazioak eta laburpena egin. Bilatu informazio idazkietan agertu behar diren 5 faktoreak (zer, noiz, non, nola eta zergatik). STEE-EILASen web orrian, lan osasuna atalean topatuko dituzu informazio horiek.
- Eskatu ikasle bakoitzari etxean topatzen duen produktu kimiko bana ekartzeko, eta produktu horren Segurtasun datuen fitxa bilatu <http://www.mtas.es/insht/ipcsnspn/Introducci.htm> helbidean.
- Ikastetxean garbiketa egiteko enpresa kontratatu behar dugu. Prozedura zehazten duen fitxa erabili ahal duzue nola egin behar den jakiteko http://www.mtas.es/INSHT/revista/fp_rev_25.pdf Arriskuen zerrenda egiteko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak erabiltzen duen arriskuen ebaluaketarako plantila erabil dezakezue: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5475/eu/contenidos/informacion/die8/eu_2067/adjuntos/procedimientos/evaluacion_riesgos/plantillas_evaluacion_riesgos_e.pdf
- Berria egunkarian <http://www.gara.net/gaiak/lanistripuak/> 2007. urtean Euskal Herrian gertatutako lan istripu guztien zerrenda agertzen da. Datu horiek hartuta estatistika desberdinak atera daitezke, ondorioen arabera, istripu motaren arabera, sektorearen arabera...
- Elkartasun adierazpenak sortu. Elkartasun eskutitza idatzi eta bidali hildakoaren lankideei. Kartel handi bat egin gertatu denaren inguruan eta ikastetxeko hormetan jarri.

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C

01001 Gasteiz

☎ 945 14 11 04

☎ 945 14 43 02

araba@stee-eilas.org

BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)

48003 Bilbo

☎ 944 10 02 98

☎ 944 10 13 60

bizkaia@stee-eilas.org

GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)

20015 Donostia

☎ 943 46 60 00

☎ 943 45 36 27

gipuzkoa@stee-eilas.org

NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)

31001 Iruñea

☎ 948 21 23 55

☎ 948 27 00 48

nafarroa@stee-eilas.org